

Bakioko Kultur Etxeak umeentzako tailer bat eta liburu baten aurkezpena antolatu ditu Liburuaren Eguna ospatzeko

BILBO, 21 (EUROPA PRESS)

Bakioko Kultur Etxeko liburutegiak Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko du asteazkenean eta, liburutegiaren ohiko zerbitzuez gain, bi ekimen antolatu ditu, liburuaren inguruko umeentzako tailer bat eta Iratxe Ormatza idazle bakiotarraren lehenengo liburuaren aurkezpena, arduradunek prentsa ohar bidez jakinarazi dutenez.

Goizean, Urkitza ikastetxeko haur hezkuntzako 3 eta 5 urte arteko umeak liburutegian egongo dira liburuaren inguruko tailer bat burutzeko. Txikienek liburuarekin nolabaiteko harremana izaten hasteko asmoa du tailerrak, jokoan edota ipuinen bitartez gauzatuko dena.

Arratsaldean, bestalde, 19:30etan, idazle, itzultzaile, zuzentzaile eta irakaslea den Iratxe Ormatza bakiotarrak bere aurreneko liburua aurkeztuko du: "Hegoak". Hegoamerikatik eginiko ibilaldiari buruzko kontaketa bihotzekoa bezain entretenigarria da "Hegoak".

Ormatzak sei herrialde bisitatu zituen bertan emandako sei hilabeteetan eta ehunka bitxikeria, paisaia eta bizipenez beteriko abentura horren fruitu da liburua. Horri eta beste hainbat gauzari buruz ariko da Iratxe Ormatza Liburuaren Egunean. Hitzordua asteazkenean da, Bakioko Kultur Etxean, 19:30etatik aurrera.